

gun diskoekin gertatu bezala, urte batzuk pasatu ondoren, inork ez du gogoan izango diskoa noiz kaleratu zen.

"Hallelujah!" diskoak irakurketa la-tza egiten zuen pertsonen arteko harremani buruz. Kantu askotan bikotea hautsi ostean onena gauzak bere horretan uztea zela zenioten. Ildo horretatik, zein da lan berriko abestien tonu orokorra?

Garai berekoak direnez, kantuek antzeko gaiak buruz hitz egiten dute. Gogoko dugu giza harremani buruz hitz egitea eta haiei buruz bakoitzak dituen iritziez. Ez dakigu zergatik egiten ote dugun horrela, baina kontua da abestiak egitekoan haxe ateratzen zaigula

Nola sortu zen Alaskaren omenezko diskoan parte hartzeko aukera?

Besterik gabe. Proposamena egin zigten eta Berlanga, Canut eta Alaska kantugile apartak direla pentsatzen dugunez, berehala erakarri gintuen beraien abesti baten moldalketa egiteko ideiak. Zailena kantua aukeratzea izan zen. Azkenean, "Cómo pudiste hacerme esto a mí" denoi gustatu zitzaigun, eta ez zen beste ezer hitz egin beharrik izan. Estudioan sartu eta grabatu egin genuen.



"Errautsen distira"

• ELKARLANEAN • Xabier Mendiguren Elizegi

"Errautsen distira" izena du Xabier Mendiguren Elizegiren liburu berriak. Bertan, gure herriko historiarekin lotutako lau kontakizun korapilatu ditu berraindarrak, ipuin luzearen eta nobela laburraren artean. Mendiguren Elizegi hamaika libururen egilea da, bere azken liburuak "Gure barria 1975", "Nerabearen biluzia" eta "Errekarteko koaderno" izan ziren.



"Arreba txiki bat dut eta zer?"

• ELKARLANEAN • J.M. Olaiola
• "Txiliku" Jokin Mitxelena

"Txiliku" zarautzarrak Iñaki izeneko mutiko kozkorren galderak dakarzkigu Elkarlanean argitartzearen "Eta zer?" sailean argitaratutako liburuan. Iñakik arreba txiki bat edukiko laster, eta kezkatuta dabil. Kontakizuna Jokin Mitxelena marrazkilariaren irudiez hornitua dator.



Odolbildua

• SUSA • Josu Landa Ijurko

Josu Landa Ijurko idazle altzatarrak "Odolbildua" izeneko bere lehendabiziko nobela plazaratu du. Nobela 50eko hamarkadako Portugaleten kokatua dago, eta Mentxu izeneko botikaria du protagonista. Denbora luze zerraman Landak liburuak argitaratu gabe. Bereak dira "Ni eta nitarrak" (1979), "Haizearen itzalak" (1980) eta "Gerraondoko poesiaren historia" (1983).



"The pub ibiltaria 6"

• ELKARLANEAN • Oskorri • 18 abesti

Oskorri taldeak 18 abesti herrikoak bildu ditu azken urteotan Euskal Herrian barrena han eta hemen dabilen "pub ibiltariaren" seigarren txangoan. Era guztietako kantuek dira: ironikoak, garratzak, maitasunezkoak, malenkoniatsuak... eta guztiak 2001ko abenduan Bilboko Hareatzan emandako kontzertuan zuzenean grabatuak. Jean Phocas izan da grabazioaren eta ondorengo nahasketen arduraduna.

